

BALIOA:

Aplikazio pertsonalizatua da, hau da, app -a pertsonalizatuta dago bezero bakoitzarentzat. Gure app -ak diseinu erraza du, baina ez aspergarria. Horri esker, bezeroak app-a erraztasun gehiagorekin erabiltzen dute. Ordaindu behar da app hau eduki ahal izateko, baina app honen zerbitzuei esker, denbora asko aurreztuko duzu. Gure aplikazioa besteengandik bereizten da bakoitzaren betebeharez gain, aholkuak ere jarriko baititugu, kirol gehiago egiteko denbora ateraz edo sozializatzeko denbora ere ateraz. Gainera, aplikazio honen bi bertsio eskaintzen ditugu, bata ikasleentzat eta bestea langileentzat. Bertsio bakoitzerako erraztasunak dituzu. Adibidez, ikaslearen bertsioa gehiago zuzentzen da etxetik kanpo eta/edo eskolaz kanpo egin daitezkeen ikasketetara, aisialdiaz gain. Langileen bertsioa, aldiz, lanorduetan denbora gehiago aprobetxatzera eta aisialdian jarduerak antolatzera bideratuta dago.